

KUTSIDAZU

IRAKASLEA: ESAN ZERTAN ARI ZARETEN, ikasten, edo lanean edo alferkeria goxo-goxoan, eta zergatik etorri zareten udako eskola honetara

1. IKASLEA: Ni joxe mari naiz, haragizko, haragijale, harakiria
Nola ostia esaten da karnicero euskaraz

IRAKASLEA: Harakina zara
Nongoa zara, zergatik ari zara euskara ikasten

1. IKASLEA: Ba pues porque irungoa naizelako eta euskara da gure herriko ezkontza

Hizkuntza

El batua de los cojones

2. IKASLEA: Ni juan martin naiz, donostiarra, ekonomia ikasten ari naiz eta euskaltegian ikasi dudana benetakoarekin konparatzera etorri naiz.

IRAKASLEA: Euskara jatorra, baserritarrena ikasi nahi duzu

2. IKASLEA: Bai andereño, maestra, irakasle andrea

IRAKASLEA: koro

3. IKASLEA: Luis nauzue, ikaskide eta irakasle maiteok baina

Dei zeniezadakete koldo edo koldobika

Aurtengo oporraldia ahintza iorik nire euskara batua aberasteko deliberoa hartu nuen

Eta horregatik bertaratu naiz euskaldunen arteko bizipenei pozgarri eta betegarri

baiteritzet

IRAKASLEA: Zer kontatzen diguzu zutaz

4. IKASLEA: Ni izaskun naiz, ondarrutarra naz baina hernanin nago taberna baten beharrin

Euskaldunzaharra naiz eta euskara batua nahi dot ikasi

5. IKASLEA: Pablo beitia aranbarri

Apaiza

1. IKASLEA: Ostia

barkatu

6. IKASLEA: Miren mendiburu naiz, donostiarra eta psikologoa

IRAKASLEA: Eta zer erizten diozu taldearen osasun mentalari

6. IKASLEA: Bikaina, dudarik gabe